



## DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA ETA XEHETASUNAK

### Tratamendua: Mezu elektronikoa

**Arduraduna:** Izena: OSATEK, SA  
IFK: A01126309  
Posta-helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 5. – 48011 – Bilbo (Bizkaia)  
Telefona: 94 400 7112  
Helbide elektronikoa: [informacion@osatek.eus](mailto:informacion@osatek.eus)  
Datuen Babeserako ordezkariarekin (DBO) harremanetan jartzeko:  
[dpd@osatek.eus](mailto:dpd@osatek.eus)

**Xedea:** Eskaerak jasotzea eta haiei erantzutea; eta, hala dagokionean, gurekin duzun negozio-, merkataritza-, kontratu- edo administrazio-harremana edo beste edozein harreman kudeatzea, eta dagokion informazioa bidaltzea. Aipatutako harremanak dirauen bitartean gordeko dira datu pertsonalak; eta, harremana amaitu ondoren, edo interesdunak datuok kentzea eskatzen ez badu, legez ezarrita dagoen epean.

**Legitimazioa:** DBEO: 6.1.a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.  
DBEO: 6.1.b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.  
DBEO: 6.1.f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek biltzen dituen interes legitimoei erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarritzeko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean.



**Hartzaileak:** Ez zaie lagako daturik hirugarrenei, salbu eta legez behartuta badago, interesdunak baimena eman badu edo gurekin duzun harremana garatu, betearazi edo kontrolatzeko, datuok ezinbestean hirugarrenen bidez tratatu behar badira.

**Eskubideak:** Interesdunak eskubidea du bere datu pertsonalak atzitzeko, baita datu okerrak zuzentzeko eskatzeko ere; edo, hala badagokio, datuok kentzeko eskatzeko, baldin eta, besteak beste, datuak jada beharrezkoak ez badira jaso ziren helburuetarako.

Inguruabar jakin batzuetan, interesdunak bere datuen tratamenduari uko egin ahal izango dio, edo tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango du. Hala bada, erreklamazioak egiteko edo haien aurrean defendatzeko soilik gordeko dira datuak.

Interesdunak berez erabil ditzake eskubide horiek, OSATEK, SA-ko Datuen Babeserako ordezkariarekin (DBO) harremanetan jarrita. Horretarako, idazki bat igorriko du aipatutako helbidera edo [dpd@osatek.eus](mailto:dpd@osatek.eus) helbide elektronikora. Era berean, eskubidea egiteko ereduak edo inprimakiak helaraziko zaizkio interesdunari.